

Zazpigarren finala duzu aurtengoa, erraz esaten da bai-na...

Niretzat finalista eta gauza hauek ez dira titulu biziarte-koak inondik inora; aldiro irabazi beharrekoak dira. Jendeak uste du gauzak horrela direla (finalista zarela), ez diren arte. Horretan denok oso memoria gutxikoak gara. Zerbait betikotzat jotzen dugu, eta egun batetik bestera aldatu eta jada egoera berrira ohitu gara, eta iruditzen zaigu egoera berria dela betiko mantenduko dena. Oso kontziente naiz horretaz eta badakit aldiro zerotik hasten dela txapelketa bat.

Nola bizi izan duzu aurtengo txapelketa?

Niretzat bi zati ditu: norbera kantatzen hasi aurrekoa eta txapelketa hasi ostekoa. Lehen fasean, entzun egiten duzu, sentitzen dituzu mila emozio, mendi errusiar batean zabiltza etengabe, zuk ere ez dakizu nola kokatu entzuten duzunarekiko, beldurra sentitzen duzu, pentsatzen duzu ez zarela gai izango haiekin jarduteko eta aldi berean haiekin zabiltza asteburuerok... sentsazio kontraesankorrak, nahasiak sortzen dira eta nahi eta nahi ez bizi egin behar dira. Bigarren fasea txapelketa hasten denean dator. Nik Irunen hasi nuen. Zorionez lehen saioa ongi atera zitzaidan eta, ondorioz, gerokorako emozio-nalki orekatuago nengoen; horrela, arreta bertsoan eta nik egin nahi nituen gauzetan jar nezakeen, errazago.

Eta prestaketa zein zatitan sartuko zenuke?

Txapelketa prestatzen aspaldi hasi gara denok. Denbora dexente daramat nik txapelketa prestatzen, batzuetan intentsi-

tate handiagoarekin, baxua-goarekin... Etengabeko lan bat da, txapelketa aitzakia hartuta areagotzen dena, baina prestaketa ez da irailean hasten, nik behintzat ez dut irailean hasten. Beraz, lehen zatia baino lehenago hasten da. Nik uste Euskal Herriko txapelketa bat ez dela hasten irailean ezta bertsozalearentzat ere.

Baionako bakarkako lanari begiratuta, esperimentatzen zabiltzala esan genezake?

Nahiko nuke finalera aldarte horrekin joan, arriskatzekoarekin. Horrek ez du esan nahi kamikaze bat izatea. Uste dut plazan jarraitzen naudenak badakiela gustatzen zaidala jolastea, gauza ezberdinak probatzea, eta nahiko nuke hori erakutsi finalean. Eta nahiko nuke, batez ere, nire burua aldarte horretan sumatu, hegan egiteko aldarte horretan, badakit bestea ere tokatuko dela (lan egitea), finala luzea delako, baina nahiko nuke hegan egiteko aldarte hori bilatu eta sentitu mikrofonora hurbiltzen naizenean ‘power’ hori, ez? Ea nondik harrapatzen diodan honi. Nahiko garbi daukat niretzat jada bertso oso onak kantatzea ez dela nahikoa; horrez gain, jendea hunkitu nahi dudala bere zentzu zabalean, harritu, interpelatu, emozionatu... Uste dut bertsoan ez dugula guretzat bakarrik egiten; guretzat bai baina jendearentzat ere bai. Euskal Herriko lau puntetatik datorrenean jendea, sarrera ordainduta, nik bilatzen dut jende hori joan dadila etxera bere ahalegin hori justifikatzen dion bertso batekin, ariketa batekin. Eta nahiko nuke batzuetan behintzat jendeak espero nuen tokietatik apartexeari ibili, topatu nazatela

beste toki batean edo esan dezatela ‘ui!’.

Nahiko nuke jendeak izatea sentsazio hori, mikrofonora hurbiltzen naizen bakoitzean: ‘Kontuz, zerbait gertatu daiteke’.

Aurten aldaketa egongo da oholtzan. Horrenbeste final bizkarrean dituen baten iritzia zein dugu?

Talde oso polita da. Berme artistiko edo bertsolaristikoak badauzkan talde bat da. Beste talde bat ere izan zitekeen eta berdin-berdin bermeak izan. Konponente ezberdinak dauka: hiru emakume finalean lehenengo aldiz; nafar bat ere

finalean aspaldiko partez; gazte-gazte bat –23 urtekoa finalean esango nuke aspalditik ez dela egon–; hiru belaunaldi badaudela esango nuke. Iruditzen zait asko abarkatzen duen argazki bat dela, eta horrek kointziditzen du, gainera, leku aldaketa batekin. Uste dut horregatik guztiagatik daukagula aldaketaren sentsazio hori oso presente.

Baina ez da erabat berritu, ez dira egon zortzi aldaketa, erdia baino gutxiago berritu da, batez besteko adinari erreparatuta ere ez da bereziki final gaztea. Ongi dator haize freskoa eta uste dut ongi dagoela

gauza horiei arreta jartzea, badaudela datu esanguratsuak, esan ditudan horiek. Baina argazki bat da, eta jakin behar da argazki hori izan zitekeela beste bat, hobe edo okerragoa bakoitzaren gustuen arabera. Eta argazkiak irakurtzen jakitea bezain garrantzitsua da errealitatea irakurtzen jakitea. Kasu honetan, ez dut uste oso aparte daudenik momentu honetan plazako errealitatea eta finaleko argazkia, baina errealitateak dauka pisua.

Eta zein da errealitatea?

Errealitate horrek momentu honetan, nire ustez, aniztasu-



«Nahiko nuke jendeak mikrofonora hurbiltzen naizenean izatea sentsazio bat: ‘Kontuz, zerbait gertatu daiteke’, pentsatzea»

na du ikur. Bertsolaritza behar-
rean esango nuke jada bertso-
laritzak daudela; plaza zirkui-
tua ez, zirkuituak daudela,
pluralean. Eta batean izan zai-
tezke jainkotua, eta beste ba-
tean ez izan interesantea, eta
hori geniala iruditzen zait. Zo-
ragarria iruditzen zait bertso-
lari batentzat horrek sortzen
duen motibazioa eta mugi-

menduarentzat sortzen duen
aberastasuna.

Hankak ere lurlean jartzen
dizkigu horrek. Txapelketa oso
ongi dago, baina jendeak bes-
telako bertso saioak antola-
tzen ditu eta deitzen ditu gus-
tatzeko zaizkion bertsolariak.
Oso ongi iruditzen zait. Bertso
mugimendua uste dut hortik
doala, eta niretzat hori da
errealitatea eta badago jende
bat inoiz txapelketako argazki
horretan agertuko ez dena,
baina plazako errealitatean be-
ti edukiko duena tokia. Zorio-
nez, momentu honetan plaza-
ko errealitatea ni bertsoan
nabilenetik anitzenetakoa dela
esango nuke: bai adinez, bai
bertso moduz, bai plaza mo-
taz. Osasuna hori da.

**Oholtza gainean izandako al-
daketak dabilta ahoz aho,
baina entzulea ere aldatu al
da?**

Bertsolari bakoitzak publiko
mota bat erakartzen duela bis-
takoa da. Joanes Illarregi edo
Aitor Bizkarraren adin buelta-
ko jendea askoz identifikatua-
goa sentituko da Illarregik edo
Bizkarrak kantatzean guk kan-
tatzen dugunean baino. Jende
horri txapelketaren trenera
igotzeko aukera eman zaio za-
le bezala, beren burua islatuta
ikusi dute oholtzan. Era be-
rean esango nizuke entzule
helduak ere hor daudela, eta
ez dakit zenbaterainoko alda-
ketak egon diren edo ez.

Aipatuko nukeen aldaketa na-
barmenena da konturatzen ez
garen aldaketa bat. 2001eko fi-

nalean nengoenen ez neukan
mugikorrik, eta inguruko jen-
de askok ere ez, eta ez zegoen
Internetik mugikorretan.
Orain topatzen duzu jendea
Txapelketa Nagusiko finalau-
rreko bat ikusten, mugiko-
rrean Lau eta Erdiko pilota
partida duela; edo komunera
ateratzen norbait kantatzen
ari denean eta komunean
saioa entzuten... gauza horiek
aldatu dira.

Nahiko deigarria iruditzen zai-
dan beste aldaketa bat puntue-
na da. Txapelketak beti dakar
zenbakien jokoa, baina aurtun-
goa bezalakorik nik ez dut iku-
si, irrigarri izateraino batzue-
tan. Iruditzen zait gizartearen
joera bat islatzen duela. Bada-
kigu zenbat ordu egin dugun
lo, zenbat urrats egin ditugun,
gure mugikorrak hori guztia
esaten digu, eta orain bat-ba-
tean ganbarakoa hasi eta kro-
nometroarekin gaude. Nire-
tzat datuak dira, eta datuek
esaten dute askotan zuk esa-
narazi nahi diezuna, interpre-
tazioa da gakoa. Ziurrenik, pu-
blikoa baino gehiago, bertsoa
entzuteko modua, txapelketa
bizitzeko modua aldatzen du
horrek. Horretara ohitu behar.

**Finala Iruñean, zure bizito-
kian.**

Bertsozale Elkartearen gauzak
egiteko modua erakusten du:
ausardia eta lurraldetasuna
aintzat hartzea. Gauzak bere
dimentsiotik atera gabe, baina
oso ongi dago euskarafobia
hain presente dagoen toki ba-
tean horrelako arnagune bat
sortzea. Inolako paternalismo
rik gabe diot hori. Ongi dago
behingoz ez elkartzeko mani-
festazio batean, elkartzeko gure
zauriak eta minak eta ametsak
bizi ditzakegun ekimen ba-
tean. Uste dut horrek arnasa
ematen duela.

SUSTRAI COLINA ACORDARREMENTERIA

BERTSOLARIA

Urruña, 1982. Seigarren Txapelketa
Nagusia, seigarren finala. Inoizko bertso
plazarik anitzena da egungoa
urruñarraren iritziz eta bere marka utzi
nahiko luke Iruñeko finalean.

Iraitz Mateo Gogorza



Marisol RAMIREZ | FOKU